Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4398

AGINDUA, 2010eko irailaren 15ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egiteko dena. Dekretu horrek enpresaburuen elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak emateko modua arautzen du, enpresa-elkarteen eta sindikatuen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko.

Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuak (2003ko irailaren 1ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, 169. zenbakia) Enpresaburuen Elkarteei eta Erakunde Sindikalei diru-laguntzak emateko aukera arautzen du, Enpresaburuen Elkarteen eta Erakunde Sindikalen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko. Dekretu horrek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak 1996. urteko urriaren 29an 244/1996 Dekretuarekin hasitako laguntza-neurriei jarraipena emateko helburua du. Adierazitako neurriak prestakuntza-jarduerak gauzatzen laguntzeko dira, Enpresaburuen Elkarteen eta Erakunde Sindikalen berezko helburuen barnean. Dekretu horren bitartez Enpresaburuen Elkarteen eta Erakunde Sindikalen prestakuntzako barneprogramak indartzera, integratzera eta koherentzia ematera zuzendutako finantzaketa publikoko sistema bat ezartzen da, horiek beren koadroen eta langileen prestakuntzarako tresna egoki izan daitezen, modu horretan egoera soziolaboralari beharrezko laguntza emanez.

Aipatutako arauak indarraldi mugagabea du, hain zuzen ere arauaren 9.3 artikuluak ezartzen du Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren Aginduaren bitartez urtero aipatutako Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egingo dela, horiek finantzatzeko erabiliko diren eskaeren eta gehienezko kopuru globalaren aurkezteko epea adieraziz, Entitate onuradunen bi kategorien artean banatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan xedatzen denez, laguntzak, enpresa-elkarteen eta sindikatuen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko enpresaburuen elkarteei eta era-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

4398

ORDEN de 15 de septiembre de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se realiza para el año 2010 la convocatoria de las ayudas previstas en el Decreto 191/2003, de 29 de julio, por el que se regula la concesión de subvenciones a las Asociaciones Empresariales y a Organizaciones Sindicales para el desarrollo de planes formativos dirigidos a mejorar la cualificación de sus recursos humanos en temas propios de sus ámbitos de actividad.

El Decreto 191/2003, de 29 de julio, por el que se regula la concesión de subvenciones a Asociaciones Empresariales y a Organizaciones Sindicales para el desarrollo de planes formativos dirigidos a mejorar la cualificación de sus recursos humanos en temas propios de sus ámbitos de actividad, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 169, de 1 de septiembre de 2003, tiene por objeto dar continuidad a las medidas de apoyo para la realización de actividades de carácter formativo dentro de los fines propios de Organizaciones Empresariales y Sindicales iniciadas por este Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el año 1996, con el Decreto 244/1996, de 29 de octubre. Mediante el mismo se establece un sistema de financiación pública dirigido a impulsar el fortalecimiento, la integración y la coherencia de los programas internos de formación de las organizaciones empresariales y sindicales, de cara a convertirlas en instrumentos idóneos para la cualificación de sus cuadros y personal, fomentando de este modo su contribución a la necesaria mejora de la situación sociolaboral.

La citada norma subvencional tiene vigencia indefinida, si bien su artículo 9.3 establece que mediante Orden del/la Consejero/a de Justicia, Empleo y Seguridad Social, se realizará anualmente la convocatoria de las ayudas previstas en dicho Decreto, con expresión del plazo de presentación de las solicitudes y de la cuantía global máxima que vaya a destinarse a la financiación de las mismas, repartida entre las dos categorías de Entidades beneficiarias.

En virtud del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, las ayudas reguladas en el Decreto 191/2003, destinadas las Asociaciones Empresariales y a Organizaciones Sindicales para el desarrollo de planes

kunde sindikalei zuzendutako laguntzak, 191/2003 Dekretuan araututakoak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren esparrukoak dira, eta horren ondorioz, Agindu hau emateko eskumena Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena da.

191/2003 Dekretuko 16. artikuluak ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan propio ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira Dekretuaren helburua betetzeko behar diren aurrekontu-baliabideak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.5 artikuluan ezarrita dagoenez –Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratua onartu zen dekretu horren bidez–, Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean, diru-laguntzak arautzeko behar diren xedapenak emango dira, eta egon daudenak gaurkotu edo aldatu egingo dira; orobat, bere garaian indarraldi mugagabekotzat jo ziren diru-laguntzak iragarriko dira.

Hori guztia dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bidez onartuta, eta aipatutako uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuko 9.3 artikuluan aurreikusitako gaikuntza baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Enpresaburuen Elkarteen eta Erakunde Sindikalen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko ematen diren diru-laguntzak arautzen dituen uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitako laguntzen eskaerak 2010. urtean aurkezteko epea hilabetekoa izango da Agindu hau indarrean hasiko den egunaz geroztik zenbatzen hasita.

Bigarrena.– Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuaren helburua lortzeko, guztira 942.858 euroko gehienezko kopurua bideratuko da 2010. urtean, honela banatuta: 660.000 euro 2010eko aurrekontu arruntekoak dira, eta 282.858 euro 2011ko ekitaldiko konpromiso-kreditu batekoak. Diru-laguntza hori, behar izanez gero, eguneratu egin daiteke, indarreko legediaren arabera aurrekontuetan aldaketak egitea onartzen bada.

Aipatutako gehienezko kopuru hori Entitate onuradunen bi kategorien artean banatuko da, banaketa egiteko honako formula hau jarraituz:

Enpresaburuen elkarteei gehienezko kopuru globalaren % 40 emango zaie, hau da, 377.143 euro.

formativos dirigidos a mejorar la cualificación de sus recursos humanos en temas propios de sus ámbitos de actividad, es materia que corresponde al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales y, en virtud ello, es competente para dictar la presente Orden la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales.

El artículo 16 del Decreto 191/2003 dispone que los recursos presupuestarios destinados al cumplimiento del citado objetivo procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece en su artículo 49.5 que una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o, en su caso, establecer las normas reguladoras de la concesión de las subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquellas que fueron en su momento reguladas con vigencia indefinida.

Por todo ello, habiéndose aprobado la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, y en ejercicio de la habilitación prevista en el citado artículo 9.3 del Decreto 191/2003, de 29 de julio,

RESUELVO:

Primero.– Para el año 2010 el plazo de presentación de solicitudes de las ayudas previstas en el Decreto 191/2003, de 29 de julio, por el que se regula la concesión de subvenciones a Asociaciones Empresariales y a Organizaciones Sindicales para el desarrollo de planes formativos dirigidos a mejorar la cualificación de sus recursos humanos en temas propios de sus ámbitos de actividad, será de un mes desde que la presente Orden surta efectos.

Segundo.– 1.– A los efectos del cumplimiento del objeto del Decreto 191/2003, de 29 de julio, se destinará para el año 2010 un total máximo de 942.858 euros, de los que 660.000 euros corresponderán al presupuesto ordinario 2010 y 282.858 euros al presupuesto de compromiso para el año 2011, cuantía que podrá verse, en su caso, actualizada en el supuesto de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

Dicha cuantía máxima se distribuirá en las dos categorías de Entidades beneficiarias atendiendo a la siguiente fórmula de reparto:

A las Asociaciones Empresariales se destinará el 40% de la cuantía global máxima, esto es, 377.143 euros.

Erakunde sindikalei gainerako % 60a emango zaie, hau da, 565.715 euro.

Hirugarrena.– Aipatutako laguntzak eskuratu eta emateko baldintzak aipatutako Dekretuan, eta Agindu honetako Xedapen Gehigarri Bakarrean azpimarratutakoak izango dira.

XEDAPEN OSAGARRIA

1.– Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoa betez –lege horren bidez aldatu da azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50. artikulua–, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexuarengatik egindako diskriminazioa dela-eta administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, ezta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legea dela-eta debeku honekin zigortutakoek ere, dagokion zigorra indarrean dagoen bitartean.

2.– Era berean, zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zehatuta dauden pertsona fisikoek ezin izango dute laguntzarik jaso, ezta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuaren eraginpean daudenek ere.

3.– Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuko 10. artikuluaren arabera, eskaera-orriarekin eraman behar den dokumentazioarekin batera, erakunde eskatzaileak aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka berraztertzeko aukerako errekurtsoa jarri ahalko diote interesdunek Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 15a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

A las Organizaciones Sindicales se destinará el 60% restante, es decir, 565.715 euros.

Tercero.– Las condiciones para el acceso y la concesión de las mencionadas ayudas serán las previstas en el referido Decreto y la señalada en la Disposición Adicional Única de esta Orden.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

1.– En cumplimiento de lo dispuesto la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, por la que se modifica el artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, no podrán concurrir en la presente convocatoria, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– Así mismo, no podrán concurrir las personas físicas o jurídicas que, por cualquier otra causa, se encuentren sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se hallen incursas en prohibición legal que les inhabilite para ello.

3.– Junto con la documentación que debe acompañar a la instancia de solicitud de conformidad con el artículo 10 del Decreto 191/2003, de 29 de julio, la entidad solicitante deberá presentar una declaración jurada relativa al cumplimiento de los requisitos señalados en los párrafos anteriores.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de septiembre de 2010.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.